

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko uztailearen 6a

Egunkaria


Gehigarri honetan



Sanferminak • Iruñean eta Lesakan bezalatsu, Azpilkueta eta Azkarate herri ttikietan besta mundialak hasiko dituzte gaur.

25 kimutako haritza

Udako Euskal Unibertsitateak Iruñeko bere hogeita bosgarren ikastaldia egingen du aurten. UEUko haritz sendoari 25 kimu atera zaizkio dagoeneko. 25 urtetan, UEUK aparteko unibertsitatea izatea erdietsi du. Uda: lan akademikoaren eta arlo ludikoaren arteko oreka egokia lortu dute. Euskara: UEUn euskal kulturaren eta euskararen inguruko militantzia zirrargarria sortu da. Unibertsitatea: ikasleen eta irakasleen artean, baita izen handikoen artean ere, ez ohi da bereizketarik. Hiru sustrai sendo beste 25 kimu ateratzeko.



Azpilkueta •

Herrikoen arteko besta

Gaur hasi eta astelehena bitartean, sanferminak ospatuko dituzte Azpilkuetan

AZPILKUETA HERRIA BAZTANGO bailarean dago, Baztangoiz kuartelean, Elizondotik sei bat kilometrotara. Han sortu zen Frantzisko Xabier zaindariaren ama, Azpilkuetako Maria. Hori dela eta, Apaioa auzoan sailduaren baseliza eraiki zuten XIX. mendean. Askok diote Frantzisko Xabier ere han jaio zela, baina hori ez dago batere argi.

Azpilkuetan sanferminak ospatzen dituzte. Askok pentsatuko lukete sanfrantziskoak ospatu beharko lituzketela, baina Nafarroan abenduaren 3an eguraldi txarra izaten ohi da %90ean. Bertalde, Fermin Deunak ere bere baseliza dauka hilerriaren ondoan, saildu bat bertzearekin ez haserretzeko agian...

Entzierrroa eta dantzaldiak

Berrehun biztanle inguru bizi dira Azpilkuetan, hainbat auzo eta baserrietan banatuak. Iruñeko eta Lesakako sanferminekin batera ospatzen direnez, argi dago herriko bestetan azpilkuetarrek eta gutxi batzuk gehiago elkartzen direla. Baina honek ez du erran nahi bestak aspergarriak direnik, ezta guttiago ere. Bestak prestatzeko, maiordomoak edo Danbolin Nagusiak hautatzen dira. Hauek arduratuko dira antolatuko beharrek guztiaz, herritarren laguntzarekin noski. Baztanen ohikoa den bezala, dirua etxez etxe eskatu ohi da gastuak ordaindu ahal izateko.

Entzierrorik ez dago Azpilkuetan, baina urte batez herriko gi-

Nafarroako patroiairen amaren jaioterrian ez dituzte sanfrantziskoak ospatzen, sanferminak baizik. Gaur dira hastekoak. Besta xumeak dira, Azpilkueta herri eder baina ttikiaren tamainakoak. Baina honek ez du erran nahi bestak aspergarriak direnik, bestetako egitaraua azpilkuetarren umorearen isla baita.



Azpilkuetako sanferminak herrikoen arteko bestak dira. Irudian, duela hogeita bost bat urteko azpilkuetar lagunarte umoretsua. • TTIPI TTAPA

zon bat goizeko zortzietan behiekin pasatzen zela konturatu zirenean, bestak iragartzeko kartelean jartzea erabaki zuten. Umore onekoak dira azpilkuetarrek, kantari eta bertsolari ede-

rrak, eta bazkari eta afari guztietan erakusten dute. Herri Arte elkarteak da herriaren erdigune. Bertan egiten dira mus txapelketak eta otordu guztiak.

Dantzaldia iristen denean, ho-

ri da komeria... Azpilkuetak ez du plaza laurik. Dantzan aritu behar duenak aldapan, maldan egin behar du, eta beherantz denean ongi baina gorantz, a zer nekeak! Tabernarik ere ez dago

herrian, baina gazteek lan handia egiten dute txosna bat eta elkartearen bertze barra bat jartzeko. Elizegi frontoia elizaren ondoan dago, pilotaleku estalia da, eta herriko haur guztiek izan dute jolasen erdigune. Aurten desafio galanta antolatu dute bertan: Jose Migel Azkarraga eta Pello Ariztia bikotea, Unai Barazabal eta Aitor Iturrালের aurka arituko dira eskuz.

Bestak mahai baten inguruan


Hasieran, Azpilkuetako Maria aipatu dugu, Frantzisko Xabierren ama, baina bera ez da herrian famatua den bakarra. Berriki, Paloma San Basilio abeslaria azpilkuetar bihurtu da, lagun baten bitartez inguruak ezagutu eta bere lasaitasunaz maitemindu baitzen; hainbeste, ezen borda bat erosi baitu bertan oporraldiak pasatzeko. Unai Barazabal bera afizionatuen mailan txirrindularirik onenetarikoa da; ea laster profesionaletara salto egiten duen.

Baztango besta gehienak mahai baten inguruan igarotzen dira, eta Azpilkuetan antzekoa gertatuko da. Gaur, 21:30ean, afaria izanen da, eta bihar, San Ferminen omenez egiten den mezaren ondotik, hamaiketako egingen dute elkartearen. Hurren eguna izanik, hauek ere txokolatea janen dute, 17.30ean. Igandean da pilota desafioa, 12:30ean; eta mus txapelketa, 16:00etan. Astelehenean, gosaria 09:30ean, eta eguerdian, zikiroa, herriko gehienek gustuko den ekitaldia. Eta gauean, afaria. Eta egunero, nola ez, dantzaldia izanen da; ostiral eta astelehenean Joxe Angel akordeolariarekin, eta gainontzeko egunetan, Mindegia anaia-arrebekin.

→ RAKEL GOÑI

bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Arratseko bederatziak eta hamarreen iritsi zen hotelera. Ate nagusitik igarotzean, handik total eginda irten nahian zebiltzan bi gizontzarrekin -lehen itxura batean, australiarrek ziruditenak- egin zuen topo, eta, ahal zela, haiengandik libratu eta, harrerako arduradunarengana jo zuen segituan.

Bi hilabete baino lehenago egin zuen gela-erreserbaren izen-deiturak baieztatu eta gero, gelako giltzak ematearekin batera, kortesiaz desenkusatu zen arduraduna, ares-tian bi atzerritarrekin izandako enkontru desatseginagatik. «Badakizu, ezta?, egun hauetan... Eta gainera, zer egingen dugu bada, morroi hauek ez dakite edaten-eta!».

Behin gelan, duxara sartu aurretik, praka zuri batzuk eta kolore bereko elastiko bat atera zituen bidai-poltsatik, ohandte ondoko kadera batean arretaz paratu zituenak. Gero, argazki bat atera zuen eskuko kartera batetik, eta, herraren suak hartuta bailitzan, zera erran zuen, arrabiaz beterik, argazkian agertzen zen emakumeari so eginez:

Ordu bat gutxiago

«Bihar izanen dun nire berri, ez zalantzarik izan, urdanga alena!».

Bidaiaatik nekatuta bazegoen ere (besteak beste, Madrilgo aireportuan atzerapen-ordu luzeak jasan behar izan baitzuten), gaizki egin zuen lo, artegaturik; eta eguna urratu orduko, jantzi zegoen aurreko gauean kadiran ezarritako arroparekin.

Oinez egin zuen hoteletik alderdi zaharrerako bidea, eta, udaletxeko plazara iritsi zelarik, handik beretik beheruntza abiatzen zen karrika bakarretik jo zuen jarraian.

Halako batean, hots egin zuen su-ziriak. Eta, hotsa aditzez bat, karrikan gora lasterketa geroz eta biziago batean baina kontrako norunzkoan zetorren korrikalari multzo estu batekin ia estropozu eginez, zezenetarantz jo zuen ahalik eta bizkorren.

Jendetzak, orduan, lehen izu-garrasiak bota zituen burugabeko korrikalari haren jokamoldea ikusita.

Saihetetik sartu zion adarra saldoburuak, eta, bizpahi-

ru metro eskuineko adarretik zintzilik herrestan eraman ondoren, pisu zamatsua arintzearen, hormaren kontra jaurtiki zuen bortizki. Zezenak, askatu ahalean, bat egin zuen laster gainerako buruekin.

Goizeko zortziak eta hogeitasei segundu ziren telebistako esatariak, ahotsa nabarmen goratuz, erran zuenean: «Gizonezko bat da, gizonezko bat... zoru gainean buruz gora etzanda eta odol putzu batean dagoena...».

Istant berean, Elenak, Iruñeko zezen-entzerruen zale amorratu aspaldikoak, «Ai ene!, Cristian da!, Cristian!... Nire gizon ohia», oihi egin zuen lazarri, alboan zeukan gizonezkoari espantuka heltzen zion bitartean.

Orduantxe, Canariar Irlotako Tenerife hiriko Elenaren etxean, goizeko zazpiak eta hogeitasei segundu jo zituen telebista gaineko ordulari kuartozkoak. Cristian, hiru minuturen buruan, hau da, zortziak eta hiru minutu eta hogeitasei segundu zirenean, gorpu zen santo Domingo lauxen gainean.

Azkarate •

Trikitixa soinuak nagusi

Gaur hasi eta igandea bitartean, azkaratearrak bestetan murgildurik ibiliko dira

Urtero bezala, Balerdi Elkartearen eskutik ospatuko dira aurtengo sanferminak Azkaraten. Ohiturari eustea eta herritarren parte-hartzea dira antolatzaileen helburuak, betiere trikitixak lagundurik.



Igandea bitarte, trikitixa soinuak izanen dira nagusi Azkarateko sanferminetan. Hala ere, egonen da bestelako ekitaldiez gozatzeko aukera. • MAILLOPE

TRIKITIXA GURE JAIETAKO gauzarik tipikoena da, jendeak dantza gutxi egiten badu ere. Hura gabe ez legoke festarik. Inori ez zaio burutik pasatu ere egiten trikitilari ez den beste inor kontratatzea sanferminetara etortzeko», azaldu du Andoni Tolosak, Balerdi elkarteak kideetako batek.

Elkarte hau duela 19 urte sortu zen, herriko gazte talde batek herrian bertan egoteko leku baten beharra sumatu zuelako. Egun 24 bazkidek osatzen dute, gehienak gizonak, eta bertan bazkariak, aforiak zein bilerak egiten dira. «Sanferminak dira elkarteak antolatzen duen ekintza kultural bakarra, eta lau bat lagun aritzen gara antolaketan», dio Tolosak.

Txupinazoaren ostean, gaur 21:30ean, herri afaria egingen dute Balerdi elkartearen. Bertako

nahiz inguruko herrietako gazteak bildu ohi dira beste hasiera emateko. Jarraian, eta goizaldea arte, Josune eta Aitziber Otegi trikitilari gipuzkoarrak ariko dira eskusoinuaz.

Ohiturari jarraituz, San Fermin egunean, goizeko hamaiak aldera, azkaratearrak herriko plazan elkartzen dira txistulari, dantzari, trikitilari eta bertsolariekin, San Fermin ermitaraino oinez joateko. «Gehienbat jende heldua joaten da, debozio handia baitiote San Fermini. Eztarriko mina eta horrelakoak kentzen dituela esaten dute gure zaharrek», esplikatu du Tolosak. Ermitara iritsitakoan meza egiten da.

Gipuzkoar ugari bestetan

Azkarate herri txikia bada ere, 105 biztanlekoa, inguruko herrietatik jendea joatea lortzen du, Gipuzkoa aldekoak, batik bat. «Amezketak eta Bedaiotik etortzen dira gehienbat, baina baita Altzo eta Alegiatik ere. Herri hauek mendiz loturik daude, eta errepidetik etorri ahal izateko buelta handia eman behar da, Tolosatik barrena. Garai batean jendea oinez edo zaldi gainean etortzen zen Azkaratera. Egun, gehienak autoz etortzen dira», gaineratu du Tolosak.

Gaztetxoak ere protagonista izanen dira. Izan ere, Aritz eta Beteluko Pilota Eskolako zortzi

mutilek bi partida jokatuko dituzte. Eskola duela bi urte sortu zen, Udalaren eskutik, eta arrakasta handia lortzen ari da. Duela gutxi Nafarroako herrien arteko txapelketan Aritz eta Betelukoak garaile suertatu ziren bigarren mailan.

Honetaz guztiaz gain, haurrentzako jolasekin, aizkora apustuekin eta bertsolariekin gozatzeko parada izanen du Azkaratera joaten den orok. «Gazteok, Iruñean sanferminak badira ere, herrian geratzeko ohitura daukagu, guretzat garrantzitsua baita», dio Tolosak.

→ Estibalitz Ortega

Erronkari • Gaiarreren mausoleoaren mendeurrena ospatuko dute hilaren 15ean

ERRONKARIK HERRI HORRETAKO TENORE Julian Gaiarreren gorpua hondarrak gordetzen dituen mausoleoaren mendeurrena ospatuko du, hilaren 15ean. Eskultura ezaguna Mariano Benlliure valentziarrak egin zuen, eta 1901. urteko uztailaren 15ean iritsi zen Erronkarira. Egun hartan bertan hasi ziren mausoleoa jartzen. Orain, ehun urte igaro ondoren, eta *Mausoleo: ehun urte Erronkarin* lelopean, Erronkariko Udalak hainbat ekitaldi prestatu ditu, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz, data hori gogora ekartzeko; beste-

ak beste, lore eskaintza egingen dute, eta hiltzaldiak eta musika emanaldiak izanen dira.

Gaiarreren mausoleoa 1890 urtean diseinatu zuten, eta Erroman egin zituzten hura eraikitze lanak, 1895ean. Julian Gaiarreren familiak eskatuta egin zuten, marmol italiar zuriz eta brontzez. Egileak, Mariano Benlliurek, hainbat erakusketa eta biurtekotan erakutsi zuen, eta zenbait sari irabazi zituen, besteak beste Madril eta Parisen. Azkenean, eta Maria Cristina erreginaren borondatearen kontra, Erronkariko San Miguel hile-

rrian jarri zuten, 1901. urteko uztailaren erdialdean, 1890 urteaz geroztik Erronkariko tenorearen gorpua hondarrak gordetzen zituen hilobiaren gainean. Mausoleoa kultur interesa duen obra-tzat jo zuen Nafarroako Gobernuak 1996 urtean; eskultura sarkofago bat ageri da, eta, handik, aingeru talde bat Gaiarreren gorpua dagoen hilkutxa ateratzen ari da. Hilkutxa zerurantz eramaten duten bi aingeruek Armonia eta Melodia irudikatzen dituzte. Gaiaren, Ospearen Jainua dago, belarria hilkutxan duela, oraindik Erronkariko tenorearen ahotza entzuteko esperantzarekin. Sarkogafaren ondoan, Gaiarreren heriotza dela eta, negarrez ageri da Musika.

→ Fernando Hualde



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Bataila

Bataillaren aurretik egindako azken patrullaren txostena. Oso sekretua, oso konfidentziala, begi hautatuenei soilik zuzendurikoa. «Jauna: uztailaren bostean, arratsaldeko zortzietan, ni eta nire menpean zeuden bost gizonak, jasotako aginduei jarraiki, Takonera-ko gordelekua utzi eta Iruñeko Alde Zaharrean sartu ginen. Kideekin ikus-lotura ez galtzeko agindu ondoren, gizonak aurretik bidali nituen eta hamar minutuz Kale Nagusitik gora egin genuen inongo ustekaberik gabe. Kalea lepo zegoen, baina barealdi berean. Jendea arropa zuri-gorria eta janaria erosten ari zen. Denek bazaramaten poltsaren bat edo beste. Gazteek xanpain botila piloa eramaten zuten, eta adineko emakumeek, berriz, harategietako poltsak. Gizonakak poteatzen zebiltzan gehienbat. Pareta batean zirkua- ren kartel bat ikusi ahal izan genuen: «LIGREA! Lehoia eta Tigrea aldi berean den animalia- ren mirria!». Erakuslehoetan dena zen San Fermin, kiliki eta zezen. Obretako aldami- o guztiak dagoeneko kenduak zeudela konturatu nintzen. Nire gizon batek malabarista suediar batzuk ikusi zituen, beste batek tabernari- ekin nola tabernen aurrealdeak olaz eta txapez babes- ten zituzten. Argi zegoen beraz: bataila hastear zegoen. Ordurako, eta bidea eginik, Zaldi Zuriaren ta- bernara iritsiak ginen. Han, gaitz- nontzeko kaleetan gorantz egiten ari ziren bataillaren zantzu guztiak agertzeke zeuden oraindik. Han dena zen miru, sorbeltz, zuhaitz eta xinaurri hegalar- i. Gizonak bel- durrez begiratzen ninduten. Nik egin bezala, bueltako bidea latza izango zela ikusi zuten haiek ere. Gure bizkarrean milaka gudari bil- tzen ari ziren. Erretiratzeko agin- dua eman nuenerako, lehendabizi- ko kantuak entzun genituen. Aus- traliar talde bat zen. Hantxe gelditu ziren nire gizonetatik bost. Seiga- rrena urtebetetze bat ospatzen ari ziren euskaldun batzuekin galdu nuen, San Zernin aldean. Lepotik eutsita eraman zuten saltoka. Ez dut sekulan bere begirada ahaztu- ko. Nik, inongo katxirik edan gabe eta eskaintzen zizkidaten besarka- da guziei muzin eginez, Alde Zaha- rretik ateratzea lortu nuen. Nire ondorioak eskatu dizkidazu Agin- tari, eta laburbilduz, hauek dira: ez dago erresistitzerik, zantzu guz- tien arabera, bataila alde aurretik galdua dugu!». •



UEUn beti irakasle eta ikasleak maila berean izan dira. Irudian, Aita Villasante Larraonako jantokian, 1977ko ikastaldian.

UEU

Martin Villaren baimena

FRANCO HIL ZELARIK, HAINBAT EZTABAI-
daren ondotik, UEUko ikastaldiak
Iparraldetik Hegoaldera eramatea
erabaki zuten. Martin Orbe
bek erran duenez, Nafar-
roan izan zituzten lagun
onak, «batez ere, Jose
Maria Satrustegi, berak
hobeto ezagutzen baitzi-
tuen Nafarroako zirriki-
tuak. Miguel Javier Ur-
meneta Iruñeko zinego-
tzia aipatu beharreko
gizona da. Bera funtsez-
koa izan zen. Berari esker
lortu genuen (Espainiako
Gobernazio ministro)
Martin Villaren baimena
ikastaroak egiteko. Eta
gero, instituzioen aldetik, aipatzekoa
da Euskaltzaindiaren laguntza. Eus-
kaltzaindiak aparte ez genuen beste
laguntzarik izan, ez Nafarroan ez
EAEn ere. Sorreran, UEUri halako
distantziarekin begiratu zioten. Baina
Euskaltzaindiak eman zuen bere sos-
tengua, eta hori eskertzekoa da».

Hona hemen Iruñeko ikastaldiak
egiteko eman baimenaren transkrip-
zioa: «Data honekin berarekin Uni-
bertsitateetako Zuzen-
dari Nagusiak Euskal-
tzaindiko lehendakariari
ondokoa erran dio: 'Erre-
ge Akademia horren
laguntzaz, Iruñeko hirian
heldu den uztailaren
18tik 30era, Udako Eus-
kal Ikastaro Unibertsita-
riok antolatzearen ingur-
uan, jaun txit prestu
horri atsegin handiz
komunikatzen dio
Zuzendaritza Nagusi
honek erabaki duela
aipatu ikastaroak bai-
aipatu ikastaroak bai-
mentzea bidaliriko egitarauari jarrai-
ki, seinatu egunetan eta hirian'.

Zuzendari Nagusiaren aginduz
zuregana helarazten dut horren berri
izan dezazun.

Jainkoak gorde zaitzala
Madril, 1977ko ekainaren 23an
Zuzendariorde Nagusia».

U DAKO EUSKAL UNIBERTSITATEAREN
lehen ikastaldia 1973an egin zen, Do-
nibane Lohizunen, aurreko urtean Baionako
Euskal Erakustokian Karlos Santamariak
Euskal Unibertsitatea sortzeko premiaz
emaniko hitzaldiaren bidetik. Hurrengo hiru
ikastaldiak ere Iparraldean egin zituzten.
Baina UEUn hasieratik ikasle gehienak He-
goaldekoak ziren, baita irakasleak ere. Hor-
taz, Franco hil zelarik, lekualdatzearen ezta-
baida piztu zen. Batzuk ikastaroak Iparral-
dean egitearen aldekoak ziren, lau urteko
ibilia horzegoelako, eta «Iparraldeak ere be-
har eta merezi duelako halako kultur errefe-
rentzia on bab», Martin Orbe orduko idazka-
riaren hitzetan. Baina besteen iritzia gailen-
du zen, Hegoaldeko ikasle eta irakasle kopu-
rue kontuan harturik. Eztabaida izan zen
bai, baina, Orberen hitzetan, «ez zen istilu-
tsua izan, arrazoizkoa baizik».

Iruñean eta euskaraz

UEUren barnean bestelako eztabaida bat
ere bazegoen urte haietan: euskal unibersi-
tatearen eta Euskal Herriko unibertsitatea-
ren kontzeptuen artekoa. Euskal kulturaren
pisua zutenen artean denek ez zuten berdin
ikusten. Adibidez, Koldo Mitxelena Euskal
Herriko unibertsitatea sortzearen aldekoa
zen, ez nahitaez euskarazko unibertsitatea.
Beste asko, ordea, Karlos Santamaria eta
Martin Orbe horien artean, euskarazko uni-
bertsitatearen aldekoak ziren, eta hori izan
zen UEUn gailendu zen ideia. Ordaz geroztik
UEUren helburu nagusia izan da «euska-
raren eta unibertsitatearen munduak elkar-
rrengana hurbiltzea» eta, ildo horretatik,
«Euskal Unibertsitatea sortzen laguntzea».

UEU Hegoaldera pasatu zen, baina toki

zehatza aukeratu behar zen. «Nik eta be-
askok nahiko argi genuen historikoki Na-
farroa izan dela Euskal Herri osoko errefe-
te historikoa», komentatu du Orbek. «H-
taz, ikastaroak Nafarroan eginez Hegoal-
de eta Iparraldea lotzen ziren. Nafarroak be-
edozein lurraldek baino hobeto bete

zuen euskal unibertsitatea Euskal Herriari
lotua izatean».

Oztopoak 25 urteren bueltan

Espainiako Gobernuaren baimena erdietsi
eta gero, 1977ko uztailaren 18tik 30era
UEUk Iruñeko lehen ikastaroak egin zituen.
Iturruma auzoko Larraona ikastetxean.
Gerora Larraona eskolaz kanpoko ekital-
diarako eta ikasleen egoitza gisa erabili
zuten; ikastetxe moduan, aldiz, Iturruma
institutu publikoa. Baina aurtan Larraonan
eginen dute dena, Nafarroako Gobernuak
Iturruma erabiltzeko baimena ukatu diola-
ko UEUri. Izan ere, aspaldi honetan Nafar-
roako agintariak oztopoak besterik ez
diote paratzen UEUri. Iaz Iruñeko Udalak
ez zion urteroko harrera egin, eta aurtan
Udalak berak eta Nafarroako Gobernuak
diru laguntza kendu diote. Hori ikusirik,
Xabier Isasi UEUko zuzendariak erran du,
Nafarroako Gobernuak UEUrekin eten
duen hitzarmenaren harridura, UEUk Nafar-
roan lanean orain arte bezain gogotsu aritze-
ko asmoa duela. Era berean, Isasik urte
hauetan guztietan Nafarroako gizartetik
jaso duen babesa eskertu du. Horren harira,
aipatzekoa da aurtengo intsumisio fiskala-
ren kanpainarekin lortu lehen milioia
UEUri eman diotela.

Oztopoak oztopo, Udako Euskal Uniber-
tsitatearen 29. ikastaldia aitzina doa. Gaur
bukatuko dira Miarrizteko eskolak, eta hila-
ren 16an hasiko dira Iruñekoak. UEUko ko-
munikazio bulegoek erran dutenez,
oraindik bada aukerarik azken horietan ize-
na emateko.

➔ Asier Azpilikueta

Datua

Hogeita bost urte hauetan:

14.000 lagunetik goiti pasatu
dira Iruñeko ikastaroetatik.

Azken bost urtetan, 500 nafar
baino gehiago izan dira
ikastaroetan.

UEUren bazkideen %10 nafar
da.

Udako Euskal Unibertsitatea
Kultur Elkartearen izenarekin
legeztatu zen 1992an UEU
Nafarroako Gobernuan. Eskaria
eratzeko akta eta estatutuak
aurkeztu eta IFZa lortu zuten.



1977an Larraona ikastetxean ikasleak. Aurtan, Nafarroako Gobernuak Iturruma ikastetxea erabiltzen utzi ez
duenez, Larraonara itzultzeko da UEU. • UEU



Iruñeko Udalak hasiera hasieratik egin zion harrera UEUri. Iaz, UPNko Gobernuak harrerarik ez egitea erabaki zuen.
• UEU



Martin Orbe • Iruñeko ikastaldietako idazkaria (1976 - 1983)

«UEUko militantziak aparteko zirrara eragin zidan»

MARTIN ORBE Iruñeko ikastaldietako idazkari-
tza taldeko kide bakarra izan zen lehen urteetan.
Idazkaritza utzi eta gero, zuzendaritza taldean
segitu nuen urteetan. Orain kanpotik ezagutzen
du UEU; kide bezala. Urteak pasatuagatik ere,
UEUko militantzia ez dela erabat galdu uste du.

■ Nola gogoratzen duzu lehenbiziko
ikastaldi hura?

Oso gogorapen atsegin bat. Lan asko egin be-
har izan zen, hori egia da. Eta ez zegoen gaurko
baliabide materialik, baina hiru gauza on azpima-
rratuko nituzke. Ba-
tetik, ikasleen eta
irakasleen artean,
baita izen handiko-
en artean ere, ez ze-
goen bereizketarik.
Denak UEUko kide
ziren, eta halaxe
funtzionatzen zu-
ten. Bigarrenik, le-
henengo urteetan
militantzia handia
zegoen. Beste ere-
mu batzuetan ere
nik ezagutu eta bizi
izan ditut militantzia jatorrak eta eredu-
garriak, motibazio erlijioso edo politikoen-
gatik, baina
UEUkoak benetan aparteko zirrara eragin zidan.
UEUn euskal kulturaren eta euskararen inguruan
sortu zen militantzia benetan aipagarria da. Hiru-
garrenik, ikastaroak udan egiten direnez, lan
akademikoaren eta arlo ludikoaren arteko hala-
ko oreka oso egokia lortu zen. Askotan izaten zen
jaitxoren bat, baina nahiz eta begiak kargaturik
eduki, jendea lehenengo orduko eskoletara joa-
ten zen.

■ Zer ezberdintasun dago lehenengo eta
oraingo UEUren artean?

Nik uste dut egon dela halako etenik gabeko
aurrerapen bat. UEUk umezaroa igaro zuen Ipa-
rraldean; Iruñean, lehen urteetan, mutil koskor

bihurtu zen; eta orain, proiektio handiko gaztea
da. Urtez urte beti sortzen da zerbait berria. Hori
da inportantea, oztopoak oztopo, ez dagoela ete-
nik. Orain, adibidez, planteatzen da graduondo-
ko ikastaroena. Horrek erakusten du etengabeko
aurrerakuntza dagoela.

■ Militantzia aipatu duzu lehen. Akaso
bidean gelditu da?

Baliteke, baina neurri batean normalean da.
Hainbat gauza horrela hasi dira gure herrian. Eta
gero etortzen dira laguntzak, erakundeen sos-
tengua. Lehen jende



askok UEUra jotzen
zuen beste biderik ez
zegoelako. Gaur, ba-
dira beste bide batzuk
ere. Militantziak bere
zikloak izaten ditu.
Baina gaur ere seguru
nago jende asko oso
militantea dela. Uste
dut erabat ez dela gal-
du. Eta euskalgintzan
hori leku askotan
ikusten da oraindik,
zorionez. Gure erron-

ka izango litzateke militantzia hori eta erakunde-
en bide ofiziala lotzea. Biak beharrezkoak dira.

■ Azkenaldian, ordea, bide ofiziala itxi
egin zaizue Nafarroan. Nola ikusten duzu
hori?

Nire aldetik bakarrik esan nahi nuke pena ema-
ten didala horrek. Dena den, Nafarroan hau ez da
bakarrik UEUrekin gertatzen, gauza orokorra da,
euskal esparru guztietan. Pena handia ematen
dit, atzerapauso handia da. Nahiz eta xehetasu-
nak ezagutu ez, uste dut ulertezina dela herrialde
bateko arduradunek beren herrialdean dagoen
kultur altxor benetan inportante bat mespretxa-
tzea eta zapaltzea. Nik ez dut ulertzen, ez da nire
buruan eta ikusmoldeetan sartzen. Baina, beno,
horrela dira gauzak gure herri honetan.

Oroitzapenen kutxan bilaka

San Valentín. Egun Valentín Redin Nafarroako Legebiltzarreko presidente **Jose Luis Castejon**en prentsa arduraduna da. Baina iruinseme-alabok nekez ahanztiko dugu Redinek foru hiri-buruko Herriko Etxean eman zuen urte mordoxka. Besteak beste, aldi berean kortxoa bezain arin eta beruna bezain astun izatea lortu zuelako —Matxinsalto Txikiaren maisuarena dirudien esaldia atera zait—.

Batetik, ez hondoratzeko gaitasun mirregarria erakutsiz, Redinek udaletxean jardun zuen bai sozialistekin —harrigarria da hitz batek zer neurritaraino galtzen ahal duen bere izatezko esanahia— bai eta erregionalistekin ere —ikaragarria da hitz batek zer estuki eusten ahal dion bere jatorrizko adierari—. Bai **Joaquín Pascalekin** —azalpen tautologiko amaiezinetan txapeldun zen PSOEko zinegotzi harekin— bai eta **Maribel Beriainekin** ere —Amaia kaleko Udal Azokako harategietan «Santiagorentzat haragirik hoberena» eskatzen zuen UPNko udal hautetsi harekin—. Bestetik, Redin pisutsuetan pisutsuena izan zen, fisikaren oinarriko legeak hausteraino. Urtean zezen-plazan zarzuela erraldoiak eta Gaiarre antzokian antzerki lan nafarrak, oso nafarrak, antolatzea gutxi balitz bezala, Sanfermin Kulturalak izeneko ekimenaren bitartez, kaspaz, zolda ofizialdu zuen munduan parekorik ez duten gure festetako egitarauan. Kaspaz

nagusitu zen forman, izendapen euskaragaitzen eskutik —euskaragaitzak, bederen, Mikel Vilches bezalako itzultzaile handiak ez garenontzat—: 'La verbena de la edad del pavo' (Indioilarraren adinaren dantzaldia?)... Eta zolda gailendu zen mamian, ikuskari ikusezinen poderioz: duela hiru urte 'Nuestros mayores' (Gure edadetuak) ekitaldi sortako izarririk distiratsuen Norma Duvalen Por Norma (Arauari jarraiki?) ikuskaria izan zen. Ezinezkoa zirudien sanferminetarako jai egitarau zoldazuagoa egiteak.

Santa Yolanda. Zendutako torero ezagun bati egozten zaion ateraldia boteprontoan euskaratuta, ezinezkoa dena ezinezkoa da, eta, gainera, ez da posible. Tautologikoa izanagatik ere, esaldia egia biribila da —euskaltzaintzako galdera: grafikoki borobil biribil baino askoz biribilagoa izanda, zergatik biribil hobetsi eta ez borobil?—. Egia berdaderoa da gizaki ororentzat, alkatetzat dugun Action-Woman-Erregionalistarentzat izan ezik —gizakia ote?—: Nafarroa Oinez en aspaldiko lelo 'ezina ekinez egina' egunero errealtate bilakatzen du alkatereak.

San Remo. Arratsalde seme-alabekin lepo beteriko Ortegaren oinordekoen denda sanferminetarako



Norma Duval, arauari jarraiki?



Valentín Redín, sanfermin kulturalaren asmatzailea.

Samueli edaria eskatzeko ahaleginean: «Datorren urtean manomanistako txapelduna izanen da». Hartara, ekaitz pilotazalea baretzearen zain tontamentian barraren gainean zetzan sanferminetako egitarau elebidun sakrilegoa irakurtzen hasi nintzen. Eta orduantxe jakin nuen egitarauan Redinek sekula amestu ez zuen zolda maila lortu duela Barcinak, Karinaren kontzertua izanen dela aurtengo sanferminetan. Ezina ekinez egina. San Miguelik ez. Samueli, kasu egin zidalarik, zerbait fuerteagoa eskatu nion. Behar nuen. Santa Habana. Kubalibrea. San Ferminek burua altxatuko balu...

arropa zuria erosten eman eta gero, ilunabarrean egarri heldu nintzen San Remora, garagardoa edateko irrikan. Gerardo mus bikotekidea eta Samuel zerbitzaria **Mikel Goñik Patxi Eugi**ren aurka lortu garaipenaz eztabaida sutsuan ari ziren: «Mozkorti alaenak txiripaz irabazi du, Eugi zisko eginda dabilelako». Birritan egin nuen porrot



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena

Puy eta San Fermin

Uztailak 6. La Unica. Nik ere ez zaitut eza-gutzen. Ajoarrieroa. Ardo gorria. Puy naiz, Xabierren lehengusina. Hauts zuria. 11:45. Champán para tirar, 250 pts. Lizarran abuztuan ospatzen ditugu jaiak. Cola-caó. Y el que no se agache... Astelehenean itzuliko naiz herrira. ETA bietan jarrai. Besapeko kiratsa. Belar-denda batean egiten dut lan. Ale Osasuna, ale, ale. Gaitariak. Amaia, emaidan zigarro bat. Zintzilikatu eta kendu, ikurrina. Gora eta Viva. PUM. Nik, berriz, urrian ditut oporrak. Ebakia hankan. Gurutze Gorria. Asko gustatuko zaizu Portugal, seguru. Zaborra. Focsako langileak. Xanpain botila hutsik dago, kabroiak! Estafeta Street, please. Amona balkoian. Txakurra magalean. Oker zabiltza, sarri beteko ditut 29 urte. Barrato, muy barrato. Euskal presoak, Euskal Herrira. Artaxonan baserri txiki bat erosi genuen 1999an. Fitero taberna. Kea eta zalaparta. Josetxo, bi Martini eskatu guretzat. Klean hobeto. Los In-

cansables. Galtzak zikindurik. Agian, etxe hori saldu eginen dut orain. Aita gaztea. Alaba bizkar gainean. Mikel, beste guztiak barruan zaudek. Hay Sangría. 36 gradu. Bai, zaila da erabaki bat hartzea. Agua, agua, agua, agua... Saltxitxa usaina. Josurekin zazpi urte egin ditut. Kontxo, aspaldiko! Deituko diat elkarrekin afaltzeko. Gabonetan amaitu zen harremana. Pa pillar costo sabéis? Entzierroko egurrezko hesiak. Beste zerbait eskatuko nuke edateko. Izerdia. Porque llegaron las fiestas... Garagardo katxi bat, mese-dez. Non sartu ote dut dirua. Lasaitu beharra daukat. Apustu eginen nuke baduzula neska-laguna. Dantzarien desfilea. Danok-bat. Oker egonen naiz baina hala iruditu zait. Kamiseta blai, titiak agerian. Ikaragarria. Oso lasai nago orain, inoiz baino hobeto. Cinco durillos pajalar algo, colega. Arratsaldeko hirurak eta laurden. Ni ere gose naiz. Ea zer dioten besteek. Ezker eta eskuin. Begiak erne. Seguru



Sanferminetan galtzea aurkitzea da.

zaude alde egin dutela? Mutiko gaztea negarrez. Bakar-bakarrik. Zuk jakinen duzu nora jo dezakegun orain. Mercaderes. Udaletxea. Jarauta. Bai, aspaldi eza-gutzen dut Lanbroa taberna. Jarauta 69. Behin batian Loiolan erromeria zan. Bi begetal eta bi kaña. Jaietan ere, erasorik ez emakumezkooi. Gaur gauean, Tonino Carotone txosnetan. Goxo-goxoa zegoen

bokata, ummm. Pixalarria. Komuna berdea. Zein gustura nagoen. Sekulako giro jatorra dago. Chesterfield. Metxeroa galdu egin dut. Begirada bihurria daukazu. Bihurriegia, agian. Irribarrea. Isilunea. Irribarrea. Oso esku hotzak dituzu. Hurbil. Hurbilago. Hurbilegi. Ustekabeko musu goxoa izan da hori. Me gusta camelarte, me gustas tú.

Zezenarenak



Joxemiel Bidador

Kapoteatzen. Harrapatzen bazaitu, harrapatzen bazaitu... Zezenak dira, zezenak, eta banago inoiz baino usuago ari garela aitzakia bila. Kotxeritotzen ari ote gara? Apika. Jeltzaleek tradizionalki zezenketei aitzia eman zizkiguten arrazoiak hutsalak ziratekeen, alabaina helburua ona bazen zertara uxatu, zertara undastu eta funsgabetu? Geure Jose Agerrek argiki zioskun 1915ean: «Iruñean egun autan ez da zezenketak bertzerik entzuten, zezenketak goitik, zezenketak beitik, oro zezenketak ta ikuskari au atsegin ezaionak ez du jakiten nora jo». Baita errepikatu ere 1916an: «Jaiak zezen zalienez bai, guretzat ordea ola ala, an zezenak baizik ez da ta». Eta ez zebilen egia sobera hastandurik, egia esatera, nahiz 36an frankistek nola edo hala domatu ostean entzierroaren aldeko sutsu agertu zitzaigun: «Eman jatorriz degu zezenen atalka, yendiok jostatzekotz odolik ez da bear, naiz eta den olgeta inarroskin azkar, zaloi-men eta azkua una biok batio, kirolabiak olderik baita kemen daukio, jokuaen zailduak darakusgu gogor». Urtez urte kalaka bera aditzera kondenatuak baikaude: sanferminetako ardatza zezenak direla, Iruñean ospatzen dena zezenaren feria dela, zezenari hemen bezain besteko miresmena beste inon airtortzen ez zaiola, eta abar eta abar eta abar, eta eskerrak. Filusea gero.

Pikatzen. Ez bai falta da, ordea, nabarmentzekotan gerok nabarmenduko genukeena. Bada nor, publikoki eta zintzoki, zezenen inguruko eztabaida aitzinatu duenik? Erantzuna aisa da: ez. Izan gaitezen lehenbizikoak bada. Onargarria da zezenekin egiten dugu-na? Eutsiko diogu aurre-rantzean? Ez dit balio alboko desenkusak, bar-ka. Galderari bere gordi-nean ihardetsi beharra diogu noiz edo noiz be-randu baino lehen, orain bada hobe.

Neu ere zezenzale txepela izana naiz. Erra-za bazen izan iruinse-mea izanki. Nerabe Jarraikoa nintzela, ezin onartuzkoak neritzen, Espainiako festa nazionala diren aldetik. Debultato-doko gazte sasirakurria nintzela, ezin utzizkoak neritzen, aitzineko euskaldu-nen ohitura diren aldetik. Gazte txartela iraungita hogeita hamarrek gixon pau-satuegia naizela, zalantzazkoak deritzet, esanahi eta istorioak alde batera utzirik esentziari begira.

On da heriotza zigorra gaingitu dugun honetan orain dela urte eskas ere borre-roa lan faltarik ez zuen funtzionario zela oroitzea, zer gerta ere eta ez oso urrutian legezko dirauela. Nire liburutegian zezenketei buruzko liburuak bñaditut, Cos-sioren edizio laburtua, Luis del Campo zein Iribarrenak, Fernandez burdi-nazko torero bizkaitarren historia, edota

«Sanferminetako ardatza zezenak direla, Iruñean ospatzen dena zezenaren feria dela, eta abar eta abar eta abar, eta eskerrak»

Nafarroako azkena. Horrek ez du ezer-txo ere justifikatzen, ordea. Historia libu-ruz gainezka badiut apalak, erregetza eta gerrak nekez justifikatzen dizkide-nak.

Banderillak jartzen. Azkeneko al-dian pasa den otsailean ikusi nuen, Zara-goako etorbidean, gorputz zimela zezenketen aurkako txartelez jantzirik, be-soak helizeak balira bezala dantzán, bat-

batean hegan hastera balihoa bezala. Xe-lebreen galerian azkenetakoa, eta ohitu garen neurrian ia ez dugu ikusten, kristal gardenez eginga balitz bezala... Profeta zaharren antzera nekaezin, isilpean beti, bere afixa zaharren euskarri irmo, salata-ri... Nor ote, eta zergatik? Damuturiko to-reroa ote? Pikatzailea akaso? Burtzitzaile itxura ere badu. Kagantxoren behialako laguna ote zen?

Kontzientziaren ahotsa karrika gora

eta karrika behera zaigu isilgordeko sala-keta zuzenean. Eroari ez dio inork errepa-ratzen, baina geure baitarik sakonenean arrazoi dezakeelako susmo puntua iziotu zaiguke. Txakurren arteko borrokek asal-datzen gaituzte, baita geureago diren oi-lar zein antzara jokoek ere. Zezenei ema-niko zigorra ikusten dugu, berriz, gizale-gea kanpoan utzirik. Plaza ez da jendakiz betetzen, moral-gabeturiko gorpu soilez bai-zik. Gutxik onartuko luke arean agitzen dena, baina inork ez du zalantza jarriko; insensibilizazio hori da, ta-malez, min handien dagiena, torturarekin kito sekularene-an egingen ez baitugu.

Muletatzen. Itsu goazi Labrit aldeko koliseumara, askari kezka bakarra. Sos ederra kostatzen den abo-nua pasabideetan higitzen du askok. Azken hiru hoben-duni jatako urrikirik erakus-teke peñakideek nazkako hariak zirriborratzen dituzte makarroekin eguzkiaren al-deko itzal gordean. Ardoak ere sakralizatzen du sakrifi-zioa, mezakotu. Bertan gauden guztion konpli-zitateak anaitzen gaitu hilketan; guztiok hil di-tugu zezenak, guztiok gara torero, guztiok errudun. Baita bizkarra emanda axolagabeki beste festan daudela us-te izan dutenek ere, ber-tan baitaude, bertako baitira, bertara behar baitute ikonoklasta agertzeko, finean berta-tik alde ez baitute egi-nen.

Gogoan dut beste motatako sakrifizioa, hilketa onartezina ere egin zelarik, peñakide guztiak zezenketa Ta-koneran ospatu izana, zezenik gabe, sazerdo-terik gabe, odolik gabe, mezarik gabe... Pago berri, ginkgo, ezpel, ez-ki, hagin, gaztainondo, arte, eta abarren artean, orein, ahuntz, ahate eta paumak lagun. Askari bitartean inork ez zuen bizkarra eman eta askari legean inor ez zen pasabideetara atera. Ez ote dugu ho-nezkero ohiturak aldatzeko garaia?

Estokeatzen. Aurten ez naiz zezen-ketara joanen, ez eta entzierro, entzierril-lo edo Gaseko tegietara ere. Eta norbai-tek ez dakit zein arrazoi klaserekin nire erabakian atzera eginarazi nahi badit, ze-ra esanen diot: betiko tradizioari men egi-nez Miluzeko zubian urkatuak dilindan ez dauden bitartean nerau bederik ere ez naiz zezenketetara itzuliko. Eta gauza ja-kina da mihi-luze azalpenarena Altadiller asmazioa izan zela, Belaskok argitu legez mihilu landareekin loturikago bailego-ke zubiaren izena, tipulatze, marrubitze edota kalamutze bezalakoen antzera. Merienda egiteko toki aproposa bada.



«Txakurren arteko borrokek asal-datzen gaituzte. Zezenei emaniko zigorra ikusten dugu, berriz, gizalegea kanpoan utzirik»



Nafar Kronika

Aitor Arotzena

Sanfermin ezberdinak

Pentsamenduak gorritu zaizkigun garai honetan eta buruan *San Fermin* hitzak bertzerik ez ditugunean, norbaitek egunkari hau erosi ez ezik NAFARKARIAren xoko hau ikusi eta, zailena, irakurtzeko interes pizarrik izanen duen zalantzarik handienekin idazten dut. Akaso, biharko egunarekin balitz, norbaitek *Diario de Navarra* ofiziala akautu den kioscoren batean erosi eta Santua ohoratze-ko («A San Fermin pedimos», sekulan edizio elebiduna izan ez duen, edo ezagutu ez duen, kantua, alegia) erabiliko luke, baina gaur. Gaurko egunarekin, sanferminek irau-
nen duten bitartean eginen dugunaren pentsamendua bertzerik ez dute iruinsen-ala-
bek, baita Lesaka eta Azpilikuetaok ere.

Nik dakidala, Nafarroako hiru leku horie-
tan ospatuko dira bestak. Hirurak gaur
eguerdian hasiko dira, baina horixe izanen
da kasik parekotasun bakarra. Eta ezberdin-
tasunak, aunitz: Mundu osoko bisitariak izan-
en dituzte Iruñean. Lesakan, larunbat gaue-
an batez ere, Euskal Herri osotik etorritako
gazteria bilduko da. Baztango Azpilikueta,
azkenik, barrideek eta auzo herrietatik etorri-
takoek osatuko dute bestazale koadrila.

Arestian aipatutakoaren arabera, ingelesa
espainola jakitea baino garrantzitsuagoa izan-
ten da Iruñean, ilehori azal-gorriren batekin
ligatzeko asmoarekin dagoenarentzat behi-
nik behin. Lesakan, bertako hizkeraz solas-
tea, erratea... ezinbertzekoa da Gipuzkoa-
Bizkaiaetik etorritakoak harritzeko. Orain,
asteburuan ligatzeko, «ser guru dusu» errate-
rakoan sekta batetaz ez zarela ari jakin behar
duzu. Azpilikueta, bertako hizkera goxoa
moldatzearekin aski izanen da.

6an hasi eta 14an akautu Iruñean, bedera-
tzi gau eta egun luze, «Pobre de mi» (edizio
elebidunik gabekoa hau ere) abestira ailega-
tu artean. Maratoilari eta ongi prestatutako-
entzat bakarrik. Bortz egun Lesakan, fondo-
erdiko lasterkalariarentzat. Lau egun Azpilikueta,
sprinter onenentzat.

Ezberdintasunak ezberdintasun, gauza
bat dago argi: denentzat bere bestak dira
onenak, beraz, Iruñean, Lesakan edo Azpilikueta,
ongi pasa!

MUSIKA

- **Lakuntza:** Reventon taldeak Sor-
giña tabernan joko du gaur,
00:00etatik aurrera.
- **Bera:** Tirri-Tarra fanfarreak
Re + Fa ikuskari sinfonikoa
eskainiko du heldu den hila-
ren 14an kultur etxean,
22:30ean.

BERTSOLARIAK

- **Iruñea:** Astelehenean, 12:00e-
tan, Imanol Lazkano, Bittor Eli-
zagaien, Amets Arzallus eta Jo-
xe Agirre bertsolariak ariko dira
Media Luna parkean.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea:** *El médico y la ciudad*, Jo-
se Joaquín Arazuriren omenez-
ko argazki erakusketa, Medi-
kuen Elkargoan dago hilaren
14a arte.
- **Bera:** Maxux Lopez margolari
irundarraren koadroak kultur
etxean daude ikusgai hilaren
15a arte, asteartetik larunbate-
ra, 10:00etatik 14:00etara eta
16:00etatik 19:00etara.
- **Iruñea:** Aurtengo sanfermineta-
ko kartel lehiaketako lanak
Descalzos 72ko aretoan daude
hilaren 21a arte.

LEHIAKETAK

- **Zangoza:** Albretoko Enrique
Zangozarrak ikerkuntza lehiake-
tako lanak hilaren 30a baino
lehen aurkeztu behar dira, Zan-
gozako udaletxean. Lanek Zan-
gozari eta zangozarrei buruzko-
ak izan behar dute. 50.000 pe-
zetako hiru sari banatuko dituz-
te.
- **Iruñea:** Umeentzako Antzerki
Testuen X. Lehiaketa abiatu
du Nafarroako Antzerki Esko-
lak. Egile bakoitzak, gehienez,
hiru testu aurkeztu ahal ditu,
ondoko betebeharrak hauekin:
argitaratu gabeko originalak
izatea eta haurrentzako

antzezlanek iraun ohi dutena
irautea. Lanak abuztuaren 1a
baino lehen aurkeztu behar
dira, antzerki eskolan (San
Agustin, 5, 31001 Iruñea).
Diru sari bakarra jarri dute
kategoria bakoitzean (euskara
eta gaztelania), 250.000 peze-
takoa, eta Iruñeko Udalak
emango du.

- **Atarrabia:** Kartel lehiaketarako
lanak aurkezteko epea abuz-
tuaren 31n akituko da. Egileek
bina lan argitaragabe aurkeztu
ahal dituzte. Gaia eta teknika li-
break dira. Kartelak 70 cm-ko
luzeran eta 50 cm-ko zabalera-
ko neurrian moldatu beharko

dira, eta bertan ondoko testua
agertuko da: *Fiestas patronales
de Villava. Del 6 al 14 de octubre
de 2001. Atarrabiako herriko
jaiak. 2001eko urriaren 6tik 14ra.*
100.000 pezetako sari bakarra
izanen da.

- **Iruñea:** Iruñeko Udalaren Egi-
le Berrientzako XVI. Litera-
tur Lehiaketarako lanak urria-
ren 31 baino lehen aurkeztu
behar dira. Lehiaketak lau sail
ditu: olerkia, narrazio laburra,
bertsopaperak eta komi-
kia. Argibideak, 948-222008
telefonoan edo [cultura@ayto-
pamplona.es](mailto:cultura@ayto-pamplona.es) helbide elektroni-
koan.

BESTELAKOAK

- **Zangoza:** Abuztuaren 10ean eta
17an eginen dituzten Erdi Aro-
ko Afarietan erreserba egiteko
epea hilaren 15ean zabalduko
da. Argibideak eta salmentak
kultur etxean, astelehenetik os-
tiralera, 10:00etatik 14:00etara
eta 18:00etatik 20:00etara, edo
948-870251 telefonoan.

Oharra:

Sanferminak direla eta, heldu den ostiralean ez
da NAFARKARIArik izanen. Hurrengo NAFARKARIA,
beraz, uztailaren 20an plazaratuko dugu. Ongi
pasa, eta gora San Fermin!

• JOXE LACALLE



Badaezpada

Badira bi gonbidatu sanfermine-
tako urteroko hitzorduan inoiz
huts egiten ez dutenak: sanfermi-
netako pilota jaialdiak eta egural-
di txarra. Bihar, San Fermin egu-
nean, Nafarroako Lau t'erdiko
finala jokatu dute Armendariz-
ek eta Goñi II.ak. Ikuskizun apar-
ta aparteko egun baterako. Iru-
dian Carlos Armendariz pilotaria
ageri da, asteazkeneko pilota
aukeraketan, Labriten. Ondokoa
osaba du, osaba eta botilleroa.
Biharko partida irabazteko pilota-
rik egokiena aukeratzeko lagundu-
ko zuen osabak, baita euritakoaz
ez ahazteko gogorarazi ere.
Lerrook idaztean, trumoi hotzak
entzuten ziren Iruñea gainean.
Larunbateko partida berotu ez
dutenez, pentsatzekoa da hots
horiek zeruko hodei beltzetan
dutela sorburua. Txupinazora,
badaezpada, euritakoa eraman.